

GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2022/23 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana

Izenburua

Interneten erabilera arduratsua Lehen Hezkuntzan Ikaskuntza-Zerbitzuaren bitartez

Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Lehen Hezkuntzako ikasleek eguneroko bizitzako esparru askotan erabiltzen dituzte IKTak, eta, adin txikikoak izan arren, ohikoak dira konexioetan bizi dituzten egoera gatazkatsu edota arriskutsuak. Arrisku jakin batzuen larritasuna eta babes-faktoreak gizarte-ingurunearekin eta familia-laguntzarekin lotuta daude. Horregatik, garrantzitsua da eskolak rol aktiboa izatea segurtasun digitaleko gaitasunetan.

Beraz, Gradu Amaierako Lanaren helburura da Lehen Hezkuntzako ikasle ahulenen hausnarketa kritikoa eta, horrela, Interneten erabilera segurua indartzeko saioak diseinatzea eta abian jartzea, Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiaren bitartez.

Lehen Hezkuntzako Graduan plaza bat eskainiko da.

Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak

Gure fakultatearen kasuan, ikaslea da gaia aukeratzeko duena, espedientearen notaren arabera. Hala ere, konpromiso soziala, autonomia eta hausnarketa kritikoa beharrezkoak dira.

Campusa

Araba

Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Titulazioa

Lehen Hezkuntzako Gradua

Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza

Euskara

Irakasle arduraduna

Rakel Gamito Gomez

Posta elektronikoa

rakel.gamito@ehu.eus

Campus Bizia Lab (CBL) proiektua

Errealitateak eraldatuz: Unibertsitatea eta Komunitatea, Hezkuntza Gradu Amaierako Lanetako (GrAL) Ikaskuntza-Zerbituaren (I+Z)bitartez humanizatzeko xedearekin lanean.

CBL proiektuaren webgunea

[Errealitateak eraldatuz: Ikaskuntza-Zerbitzua GALetan –iraunkortasuna UPV/EHU.](#)